

66. FITXA BIZKAIA – Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte hartzea sustatzeko dirulaguntza

Nori zuzendua: Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalak; Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalek parte hartzen duten hurrengo elkarteak: — Bizkaiko mankomunitateak. — Bizkaiko «Behargintzak» Enplegurako Laguntzarako Zentroak. — Bizkaiko Federazioa eta Landa Garapeneko Elkarteak. — Bilbo-Bizkaia 2030 Turismo Estrategian aintzatetsitako Bizkaiko eskualdeko turismo-kudeaketako erakundeak: Gorbeialde, Jata Ondo, Urkiola, Urremendi, Enkartur eta Lea Artibai Fundazioa.

Sarbide-esteka: [Hasiara – Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa](#)

Erreferentziako araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 121/2024 FORU-DEKRETUA, azaroaren 28koa, zeinaren bidez onartzen baitira dirulaguntza foralen deialdia eta oinarri arautzaileak, sustatzeko 150.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalek eta udal horiek parte hartzen duten elkarteek Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte hartzea 2024ko azaroaren 1etik 2025eko urriaren 31ra bitartean.](#)

Eremuak: Erkidegoaren finantzaketa

Zenbatekoa: 60.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025ko urtarrilaren 8ko 8:30etatik 2025eko urriaren 31ko 13:30ak arte, edo aurrekontua agortu arte.

Laburpena

Dirulaguntzen xede izango dira Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalei edo udal horiek parte hartzen duten elkartei laguntza tekniko eta kanpoko aholkularitza ematea, baldin eta laguntza eta aholkularitza horien helburua bada 2024ko azaroaren 1etik 2025ko urriaren 31ra bitartean **Europar Batasuneko programa eta ekimenetan proiektuak aurkeztea**.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira, kanpoko aholkularitzako enpresek emandako fakturretan jasotzen direnak baldin eta **Europako programa eta ekimenetarako tokiko proiektuak aurkezteko laguntza teknikoaren eta aholkularitzaren ondoriozko** gastuak badira.

Halaber, honako gastu hauek onartuko dira:

- Bideragarritasun- eta merkatu-azterlanak.
- Proiektuaren garapenerako beharrezkoak diren txosten eta azterlan espezifikoak.
- Proiektua Europako ekimenarekin, proposatutako Europaren partzuergoarekin eta deialdi zehatz batean egokitzen den ebaluatze txostenak.
- Partzuergoaren jardueren koordinazioa.
- Proiektuaren idazketa.
- Proiektua eskatzen diren bitartekoen bidez aurkeztea.

Gastuetarako aldi hautagarria

2024ko azaroaren 1etik 2025ko urriaren 31ra bitartean.

Laguntzen zenbatekoa

Europako funtsek finantzaturako deialdi batean proiektu bat aurkezteko onuradunak kontratatu behar izan duen laguntza teknikoko eta aholkularitzako kanpoko kostuaren portzentaje bat izango da finantzaketa. Baremazioa honako hau da:

Udalak:

- 1.200 biztanle baino gutxiago baditu, kanpoko kostuen **%100** finantzatuko da.
- 1.200 biztanle baino gehiago eta 7.500 baino gutxiago baditu, kanpoko kostuen **%75** finantzatuko da.
- Gainerako erakunde onuradunentzat, kanpoko kostuen **%50** finantzatuko da.

Elkarteak:

- Erakunde onuraduna osatzen duten udalen biztanleriaren batura 1.200 biztanletik beherakoa bada, kanpoko kostuen **%100** finantzatuko da.
- Zenbateko hori 1.200 biztanletik gorakoa eta 7.500 biztanletik beherakoa bada, kanpoko kostuen **%75** finantzatuko da.
- Gainerako kasuetarako, kanpoko kostuen **%50** finantzatuko da.

Laguntza gehiegi ez jasotzeko, **10.000 €-ko** muga ezarri da entitate onuraduna bakoitzeko.